

DAVANT, LUKU ETA BORDA TRADIZIOAREN PISUAZ MINTZATU DIRA MAIATZ-EN SOLASALDIETAN

Literaturaren askatasunaren aldarrikapena

■ Maiatz elkarteak

solasaldiak antolatu ditu
Iparraldeko literaturaren
inguruan

■ Jean-Louis Davant, Antton

Luku eta Itxaro Borda
idazleek askatasuna
aldarrikatu dute

■ Literaturaren

trazionaltasunaren
pisua aldarrikatu zuten
hiru idazleek herenegun

Eneko Bidegain / Baiona

«LITERATURAK askatasuna behar du oroz gainetik», adierazi zuen Jean-Louis Davant idazleak herenegun arratsan, Baionako Biltxokoan, Maiatz elkarteak *Literatura Iparraldean, nola?* galderaren inguruan antolatu dituen XVI. Literatur Solasaldietan. Antton Luku eta Itxaro Borda idazleak ere arras ados agertu ziren Jean-Louis Davanten ideia horrekin. «Maiatz laboratoriora da. Idazleak ikasi du ez autozentsuratzeko, bere gogoaren arabera idazten, tradizioa hausten duen edo ez axolatu gabe», azpimarratu zuen Itxaro Bordak, bere hitzaldia baikorki bururatu.

Idazle berrienganako «mesfidantzak» aipatuak zituen lehentxeago Itxaro Bordak berak. «Hizkuntza ez hain garbia» eta «ez-euskal eredu-ko gaiak erabiltzea» leporatzen zaiela zehaztu zuen. «Bik gaia ikusten dira literaturaren: euskararen aberastasuna eta trazionaltasuna. Tradizioa finkatua den moldean, euskarak mugak ezartzen dizkigu. Gauza batzuen idaztera ez gara menturatzeko», komentatu zuen.

Ikusmolde desberdin bat bizi nahi dutenek «bide heresia» dutela gehitu zuen Itxaro Bordak. Zenbait salbuespen zerrendatu zituen, hala ere, hala nola Jon Mirande, Etxepare medikua eta Eñaut Etxamendi.

«Batuan hitzak burrustaka heldu»

«Euskarak biziaren erakusteko ahala behar du», Antton Lukuren ustez. Hiztegiaren aldetik askatasun berezia aldarrikatu zuen. «Ados naiz ez dugula kultura bereizle behar, baizik eta eraikitzailea. Baina eraikitzailea uhainik gabekoa bada, ez da eraikitzailea, lo-belarra da», adierazi zuen Lukuk. Literatura «popularra» dela zehaztu zuen.



BOB EDMIE

Jean-Louis Davant, Antton Luku eta Itxaro Borda idazleak, herenegun, Baionako Biltxokoan.

JEAN-LOUIS DAVANT

■ ■ ■ *«Iparraldeko euskaldunek anitz badugu ekartzeko, literatura zaharra baitugu; tematika aldetik ez hain aberatsa, baina euskararen aldetik bai»*

ITXARO BORDA

■ ■ ■ *«Maiatz laboratoriora da; idazleak ikasi du ez autozentsuratzeko, bere gogoaren arabera idazten, tradizioa hausten duen edo ez axolatu gabe»*

ANTTON LUKU

■ ■ ■ *«Ados naiz ez dugula kultura bereizle behar, baizik eta eraikitzailea; baina eraikitzailea uhainik gabekoa bada, ez da eraikitzailea, lo-belarra da»*

Mintzarazten den pertsonaiaren hiztegiaren erabiltzea garrantzitsutzat dauka Antton Lukuk. «Pertsonaia batek *chomeur* erraten badu berez, eta haren hitzetan *langabe* ezartzen badugu, per-

tsonaia desagertzen da», esplikatu zuen.

Euskarak berez dituen itzuli eta esaerak ez aski baliatzea damugarritzat jo zuen Antton Lukuk: «Fosilizatzen uzten ditugu».

Jean-Louis Davantek, literaturako hizkuntzak legegintzakoak baino askoz hitz eta nabardura gehiago behar dituela azpimarratu zuen. Euskalkietako hitz ezberdinak juntatu behar dira, bere ustez, euskara baturako. «Batuan hitzak burrustaka heldu dira», azaldu zuen Jean-Louis Davantek herenegun Baionan.

«Iparraldeko euskaldunek anitz badugu ekartzeko, literatura zaharra baitugu; tematika aldetik ez hain aberatsa, baina euskararen aldetik bai», oroitarazi zuen Jean-Louis Davantek herenegun Baionako Biltxokoan izan zen solasaldian. «Lapurterra ez dezagun bazter», aholkatu zuen, eta euskalkien arteko eta euskara batuari buruzko zubi gisa aurkeztu zuen. «Hegoaldekoek lapurtera gehiago sartu behar lukete batuan», gomendatu zuen. Euskalki bakoitzak duen hoberena ekarri osatu behar da euskara batua, idazle zuberotarren ustez.

2002. urterako prest izanen da Bilboko kontserbatorioaren egoitza berria

■ *Proiektuak mila milioi pezetako aurrekontua du*

Europa Press / Bilbo

BILBOKO kontserbatorio berria eraikitzeak akordioa erdietsi dute Bilboko Udalak, Bizkaiko Diputazioak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Hezkuntza kontseilari Inaxio Oliverik atzo jakinarazi zuenez, proiektuak mila milioi pezetako aurrekontua du (40.000 libera inguru), eta 2002rako prest eta abian jartzeko moduan izango da kontserbatorioa.

Eraikin berria Agirre Lehendakariaren hiribidean izango da, eta 6.800 metro koadro izanen ditu. Hirurehun ikasle hartuko ditu kontserbatorioak, 50 kurtso bakoitzeko.

Kontserbatorioaren leku berriak, bestalde, Bizkaiko Diputazioko liburutegia handitzea aukera emango du, Hezkuntza kontseilariak azpimarratu zuenez. Izan ere, liburutegi horretako hainbat areto hartzen ditu egun Bilboko Kontserbatorioak.

Donostiako Talde Barrokoak kontzertu batekin ospatuko du 25. urteurrena

Europa Press / Donostia

DONOSTIAKO Talde Barrokoak Victoria Eugenia antzokian ospatuko du gaur, 20:00etan, bere 25. urteurrena. Taldeki-deek Henry Purcellen *Dido eta Eneas* opera estreinatuko dute.

Gaurko emanaldian, Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak, Iñigo Laboreria baritonoak eta Arantxa Etxabe sopranoak lagunduko dute Talde Barrokoak, Donostiako Orfeoiko hainbat abeslarirekin batera.

«Kontzertu berezia izanen da. Taldeak urteotan izan dituen jarraitzaile eta laguntzaile guztiei eskaini nahi izan diegu», azpimarratu zuen Donostiako Talde Barrokoko zuzendari Gotzon Arrizabalagak atzo, gaur emanen duten kontzertuaren aurkezpen ekitaldian.